

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**133/2018 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, baimena ematen diona Elvira Ocio Vizuete lekorako eta Moreda Arabako udalen elkarteko idazkariari metaketa bidez Berantevilla eta Armiñongo elkarteko idazkari eginkizunak ere betetzeko**

Berantevilla eta Armiñongo elkarteak baimena eskatu du Elvira Ocio Vizuete lekorako eta Moreda Arabako udalen elkarteko idazkariak Berantevilla eta Armiñongo udalen elkarteko idazkari eginkizunak ere betetzeko. Eginkizun horiek metaketa bidez betetzeko dira, lanpostua hutsik geratu baita Berantevilla eta Armiñongo titularra zena, hau da, Dionisio San Juan Ece-narro, hil ondoren.

Aipatutako lanpostua betetzeko, Berantevilla eta Armiñongo udalen elkarteak 2018ko apirilaren 11ko ALHAOn (41. zenb.) iragarki bat argitaratu zuen, Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko edozein funtzionarioek lanpostu horretan aritzeko behin-behineko izendapena eskatu ahal izateko 10 eguneko epean.

Epe hori igaro ondoren, ez da inolako eskaerarik jaso, elkarte interesdunak egiaztatzen duenez. Beraz, bidezkoa da martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioen lege araubidea arautzen duenak, bere 48. artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusitako prozedurarekin jarraitzea, idazkari bat izendatuz zerbitzu eginkizunetan edo eginkizun metakeraren bidez.

Horretarako, apirilaren 26an lekorako eta Moreda Arabako udalen elkartearen eta hango idazkariaren idazkia jaso da, eta bertan biek adierazi dute ados daudela metaketa bidezko izendapena egitearekin.

Oraingo honetan, betetzen dira eginkizunak metatzea erabaki ahal izateko legez ezarritako betebeharrak, jaso baita Berantevillako eta Armiñongo udalen elkartearen berriazko eskaera, bai eta baimen eskaeraren xede den funtzionarioaren adostasuna eta funtzionario horrek lan egiten duen elkartearen adostasuna ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, eskatu den metaketa baimentzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundia da, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian zehazten den bezalaxe.

Azaldutako guztiarengatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea Elvira Ocio Vizuete lekorako eta Moreda Arabako udalen elkarteko idazkariari Berantevilla eta Armiñongo elkarteko idazkari eginkizunak ere betetzeko, metaketa bidez.

Bigarrena. Izendapen horrek ondorioak izango ditu 2018ko maiatzaren 7tik Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario izendatuz lanpostu hori bete arte, hargatik eragotzi gabe edozein unetan errebotatzea erabakia edo bera kargutik kentzea horretarako legezko kausaren bat dela-eta.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, lekorako eta Moreda Arabako udalen elkarteari eta Berantevilla eta Armiñongoari, bai eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioe-kiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 4a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren  
eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
IÑAKI GUILLERNA SAENZ